



Donostiako turismoa desestazionalizatzen eta nazioarteko bihurtzen ari da, EUSTATen datuen arabera

Donostia eta Gipuzkoak hazkunde handiena izan dute martxoan. Gipuzkoako turismoaren %57,2ak Donostian lo egiten du.

Ernesto Gasco Donostiako lehen alkateorde eta Turismo zinegotziaren arabera, "datuak garrantzitsuak dira, Aste Santua Estatuko turistak erakartzen dituen garaia baita; baina, Donostiaren kasuan, hazkunderik handiena, hots, %26koa, nazioarteko hiritarrena izan da. Aste Santuaren fenomenoak kontuan hartuta, gure turismoa urtaro jakin batzuekin ez lotzea eta nazioartekotzea lortzen ari gara. Mundu guztiko pertsona ugari bisitatzen gaituzte, Aste Santua izan edo ez, oporrak izan edo ez... beraiek garai horretan ez baitituzte".

EUSTATEk martxoan argitaratutako datuen arabera, hiriburu guztiek hazkundera izan dute, baina kontuan izan behar da, Aste Santua aurten martxoan izan dela, eta joan den urtean, aldiz, apirilean. Ernesto Gascok hurrengoak adierazi du "**Donostia Euskadi osoan lekuri erakargarriena bezala indartzen ari da turistak erakartzeko garaian. Atzerritarren sarrerak, oporrak ez dituzten arren, %26 igo dira Donostian. Datua oso garrantzitsua da eta gure apustua bide onean doala erakusten du, hazkunde leun eta iraunkorraren alde, sektoreko milaka lanpostu bermatuz**".

Hiru hiriburuen artean, Donostia da martxoan hazkunderik handiena izan duena (%25,8), Bilboren (%16,1) eta Gasteizen (%11,5) igoerekin alderatuta. Hotelen logelen errentagarritasuna, halaber, Donostian mantendu egin da (63,3 euroko RevPar-arekin). Ernesto Gascoren hitzetan "*Gure hotelen logelen errentagarritasuna mantentzen dela ere aipagarria da. Aurtengo eta joan den urteko Aste Santuetako datuak alderatzen baditugu, balantzean aipatu genuen bezala, datuen eboluzioa leuna izan da, %0,9ko jaitsiera txiki batekin. Horrela, Donostiak egonkortasuna mantentzen du sektorean, eta Donostia eta Gipuzkoako datuak Bizkaia eta Arabakoetatik urrun kokatzen dira*".

Hilabete honetako datuak, berriro ere, bat datoz **Donostia VISIT- BIZI 2017-2021 Turismo Gida-Planaren** lan ardatzekin – desestazionalizazio, nazioartekotzea, hiriaren benetakotasuna eta iraunkortasuna.